

GEROTIK GEROKO GERORA (Edo izenburu baten doitzearen inguruan)

Gotzon Garate gogoan⁴

1.- Ezaguna denez, Axularrek “kontrolatu” bide zuen⁵ edizioan (*Gero*, Bordele, 1643), bigarren partea izan behar zuena argitara emateko itxaropena azaldu zuen autoreak hainbat tokitan⁶. Asmo hura horrela adierazia izan zen izenburuan:

GVERO,/ BI PARTETAN partitua eta berecia,/ LEHENBICICOAN/ EMAITEN DA, ADITCERA,/ cenbat calte eguiten duen, luça-/ mendutan ibiltceac, eguitecoen/ gueroco utzteac./ Bigarrenean quidatcenda, eta aitcinatzen, luça/ menduac utciric, bere hala, bere eguin bi-/ deari, lotu nabi çaicana.

Datarik gabe kaleratu zen bigarren edizioan⁷, berriz, edizioa “kontrolatu” zutenek⁸ oso argi zekiten ezinezko izango zela

⁴ - Bera ere *G.G.*, artikulua honetara ekarri gaituen liburuaren izenburua bezala.

⁵ - Prebentzio guztiekin har bedi hemen darabilgun *kontrolatu* aditza, ezinezkoa baita jakitea zernolako aldar-tearekin ibili zen inprenta-eginkizunetan hurrengo urtean hilko zen Axular egilea.

⁶ - Liburuaren izenburuan, *Iracurçailleari* izeneko aitzinsolasean (15-16 or.) eta baita “GVERO/ HASTENDA GVE-/ ROTIC GVERORA/ dabillanaz, eguiten den, li-/ buruaren lehen partea” izan behar zuenaren buruan ere (ikus 21 or.).

⁷ - Azalean bertan adierazten da “Bigarren Edicionea” dela. Guztiarekin ere, ohartaraztekoa da egun Europako zenbait liburutegitan 1643ko *princeps* delakoaren aurretik inprimatu izan bailitzan katalogatu ohi dutela datarik gabeko bigarren edizio hau. Horren aurretikoak ez dira bart gauekoak, ordea:

Axularrek iragarria zuen bigarren parte hura eskaintzea⁹ eta, ondorioz, izenburua ere egokitu beharra zegoela ezinbestez. Eta horrela jokatu zuten.

2.- Bigarren edizioaren azal berriztatuak, hortaz, liburuaren berri zehatza eman nahi izan zuen eta eman ere, eman zuen:

GUEROCO/ GUERO,/ EDO/ GUEROCO LUÇAMENDUTAN/ ibiltceac, eta arimaren eguitecoac/ guerocotz utzteac cembat calte/ eguiten duen.

Halaber, bigarren edizioaren izenburu egokituak informazio gehiago ere eskaini zion irakurleari, hots,

Escritura Saindutic, Eliçaco Doctor-etaric,/ eta liburu devocinozcoëtaric AXULAR/ Saraco Errotorac vildua, eta argui-/ tara amana./ Bigarren Edicionez corrigetua, eta/ emendatua.

Nabari den bezala, ez da gutxienekoa liburuaren *egiletza*-ren (nolabaiteko) aitortpena, lehenengoan ez bezala, bigarren edizioan Axularrek, materialak beste liburuetatik bildu ez ezik, “argitara emana”¹⁰ ere izan zela dioen pasartetxoa erantsi baitzen.

“des conservateurs tenaces, forts des indications données à la légère par Larramendi, par M. Fr. Michel et par d'autres bibliographes de circonstance, n'ont pas encore été convaincus. Ils ont cru pouvoir supposer une première édition à la date de 1640” (Vinson 1880, 105-106).

⁸ - Axular hil eta aski geroagokoa dirudi bigarren edizioak. Edonola ere, nekez jakin genezake edizio berrirako dispoziziorik utzi zuen urdazubiarrak. Horretatik dator, bada, ardura gutzia edizioaren kontrola eraman zutenei bizkarreratzearena.

⁹ - Ez gara hemen arituko zergatik, nondik edo nola zekiten hori: Axular hila zelako eta bigarrenerako zuen materiala elaboratu gabe geratu zelako ala beste zerbaitegatik. Nolanahi ere den, hitzaurre gisako gutunen eta aprobazioen ondoren datorren atalaren goiburua ez zuten ez aldatu ez egokitu, bere hartan geratu baitzen obraren “lehen partea” zela adierazten zuen errotxua (21 or.).

¹⁰ - Literalki, “arguitara amana” esaten da, liburuan barrena ohiko bilakatuko den akats tipografiko ugarien atalari hasiera emanez.

Horrezaz gainera, edizio berria “corrigetua, eta emendatua” ere izan zela adierazten da azalean, hots, zuzendua eta hainbat hitz edo pasarte berriz hornitua¹¹.

Ez da aditzera ematen, halere, nork egina izan zen *egokitzapena*, ez eta nondik hartuak edota non eta zertan oinarritu izan ziren zuzenketak-emendailuak.

3.- Aurreratu legez, zuzentze-lana zela eta, liburuaren izenburua bera ere doitua behar zela erabaki zuten edizio berriaren prestatzaileek. Eta halaxe egin zuten, azken emaitza, mezuaren argitasunaren aldetik bederen, askoz ere egokiagoa izan zelarik, nahiz eta, oro har, luzeagoa eta ez lehen edizioak zeramana bezain trinko eta esanguratsua.

Jakina, izenburu laburtutzat geratuko zen idazpuru berria (*Geroko gero*) ez zen *Gero* zaharrak zuen estilizazio mailaraino iristen, baina jolas editorial biribilagoa ahalbidetu zuen lehen edizioak izenburuaren zati gisa zeraman parteei buruzko atal informatzaile eta antiestetikoa ezabatzean eta obraren mamia laburtzen zuen pasartearen izenburuarekin batera ematean.

Azken fruitua –azal dezagun osorik, behingoz– honako hau izan zen:

*GUEROCO/ GUERO,/ EDO/ GUEROCO LUÇAMENDUTAN/
ibiltceac, eta arimaren eguitecoac/ guerocotz utzteac cembat
calte/ eguiten duen.*

Egokitze *teknikotzat* defini liteke, seguru asko, berriztatze horretan burututakoa. Baina aldi berean, onartu beharrekoa da ahalik eta gehien errespetatu nahi izan zela lehen edizioan autoreak finkatua utzi zuena.

4.- Nolanahi ere den, izenburu zaharraren egokitze horretan bospasei urrats –diogun– kontzeptual atzeman litezke, guk era hipotetiko batean (eta Euskal Literatura klasikoak hain gogoko

¹¹ - Ikus Salaberri 2007.

duen fikzio extraliterarioan harrapatuak izateko lakioa hedatua den arren) berreraikitzen ausartuko garenak. Hona hemen:

- a) Lehendabizi, eta lehen edizioeko izenburua bere hartan harturik, alferrikakoak ziren “*BI PARTETAN/ partitua eta berecia,/ LEHENBICICOAN/ EMAITEN DA, ADITCERA,*” lerroak eta ordurako argia ikusteko aukerarik izango ez zuen ustezko bigarren zatiari buruzko erreferentzia¹² kendu ziren.
- b) Ondoren, liburuaren mamia (hots, lehen edizioaren arabera, lehen parte baina izan behar ez zenarena) zein zen aditzera ematen zuen atalaren osagai guztiak berrantolatzeari ekin zitzaion. Eta “berrantolatzea” diogu, funtsean berrantolatze hutsa izan baitzen lehen edizio-ko “*cenbat calte eguiten duen, luçamendutan ibiltceac, eguitecoen gueroço utzteac*” harekin, perpausaren subjektu bikoitza burura eramanez eta zehar-galdera amaierarako utziz, burutu zena.
- d) Dena den, berrantolatze *huts* dirudien horretan ez da kontu ohargarririk falta, aski informazio interesgarria eskaintzen duten *emendatze* moduko batzuk, besteak beste¹³. Izan ere, edukiaren aldetik zehaztu egin baitzen landuko ziren *egitekoak* ez zirela edonolakoak, *arimarenak* baizik; horrela, teologikoki argiago geratu zen arimaren *egitekoen* luzamendutan ibiltzea bezain kaltegarria zela luzamendu profanotan ibiltzea. Horrekin loturik, ezinbestekoa zen gramatikalki ere atal biak maila berean uztea. Horretarako, izen sintagman aposizio gisara zihuan bigarren atalaren aurrean *eta* lokailua ezarri zen, singularreko hirugarren pertsonan zegoen aditza egokitu ez bazuten ere.

¹² - *Bigarrenean quidatcenda, eta aitcinatzen, luça/ menduac utciric, bere bala, bere eguin bi-/ deari, lotu nabi çaicana* delakoa, hain zuzen.

¹³ - Hemen ez dira *guero / guero* edota *cenbat / cembat* bezalako alde (orto)grafikoak aztertuko.

- e) Uztargarri gisara, juntagailu hautakaria (*edo*) tartekatu zen lehen edizioan izenburu huts izan zenak azpi-izenburu berriarekin gorputz bakarra osa zezan: **GUERO EDO LUÇAMENDUTAN ibiltceac...**
- f) Garaiko sentsibilitatearentzat, izenburu osatu berriak pobreziaren biluztasuna erakusten zuen alde guztietatik izaera erretoriko naroa islatzen zuen liburuaren goiburua izateko. Horrela, izenburuko hitz gakoa baliatuz, Axularren sen erretorikoak arras gogoko zuen jolas anaforikoa osatu zen juntagailuak uztartzen zituen bi atalen hasieran, liburuaren izenburua erretorikoki orekatuagoa eta kontzeptualki zeharo indarberritua atera zelarik: **GUEROCO GUERO, EDO GUEROCO LUÇAMENDUTAN ibiltceac...**¹⁴
- g) Jolas anaforiko horrek lehen edizioko azpituduluan *gueroco zena guerocotz* bezala editatzera bulkatu zituen argitaratzaileak, erredundantzia kakofonikoak hein batean bederen saihestu ahal izateko. Baina haren adizlagun-izaera azpimarratuta eta izenburu bikoitzaren hasierako hitzen paralelismoaren indarra “intruso”¹⁵ berdinek gabe geratzen baziren ere, ez bide zen kontutan hartu Axularrek behin ere ez zuela *guerocotz* forma erabili.
- h) Azkenik, *arimaren* hitzak ondokoaren genitiboarekin (hots, *eguitecoen* hitzarekin) sortzen zuen soinu-erredundantzia anti-axulartarra ekiditeko, lapurteraz objektu zuzenerako nominalizazioak eskatu ohi duen genitiboa akusatibora eramatea otu zitzaien edizio-prestatzaileei (*eguitecoac*).

¹⁴ - Kontuak argitze aldera, esan dezagun lehenengo *Geroko gero* formak liburuan barrena lekukotasun bi dituen bitartean (53. eta 166. orrialdeetan), bigarrena behin bakarrik azaltzen dela Axularrenean: “gueroco luçamendutan ibili gabe” (440 or.).

¹⁵ - Ez zen, ez, arrotza Axularren jatorrizko izenburuan zegoen “gueroco” bakar hura, argitaratzaileek ekarritakoak baizik.

Esan gabe doa mendebaldeko euskalkien azturaren ildoko “berrikuntza” hau edizio berrizatuaren ardura-dun(ar)en hizkuntz jatorriaz ere mintzo daitekeela seguru asko. Testuan barrena agertzen diren emendailu berrien ildo berean, edonola ere.

Hauexek, beraz, bi parte izateko promesa egiten zuen *Gero* liburua, Axular hildakoan, parte bakar bateko baino ezin izan zitekeen liburutzat uzteko arrazoia eta izenburu berriaz (*Geroko Gero*) hornitzeko prozedura –diogun berriro ere– kontzeptuala.

Hipotetikoak bi-biak, jakina; horrelakoetan –honako hone-tan bezala, burututakoen bitartez inoren gogoan sartzeko erronka planteatzen denetan, alegia– egin daitezkeen bakarrak.

Patxi Salaberri Muñoa

Artikuluak aipatuak

- AXULAR, 1643, *Guero bi partetan partitua eta berecia...*, G. Milanges, Bordele. (Faksimiltzat argitaratua: Euskaltzaindia, Bilbo, 1988).
- AXULAR, d./g., *Gueroco Guero. Bigarren Edicionea corrigetua, eta emendatua* (Eusko Legebiltzarreko Liburutegian dagoen bigarren edizioko alearen faksimila, Bilbo, 2006).
- SALABERRI, P., 2007, “Axularren *Gero* liburuaren bigarren argitalpena lehenaren argitan”, *Egan* 60, 173-200.
- VINSON, J., 1880, “Le *Gueroco Guero* d’Axular”, *Revue des Bibliophiles* II, 104-109.
- Vinson, J., 1891-1898: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volumenes I y II)*, Donostia (1891eko *Essai d’une Bibliographie de la Langue Basque* eta 1898ko *Complément et Supplément* liburuen edizio bateratua, eta J. Urkixoren oharrez hornitua).